

GABONETAN 0 GRADUKO TENPERATUREKIN LA SIRENA ATERPETXEA ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO EZ IREKITZEA DELA ETA KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urtarrilaren 22an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuako gizarte-ekintzako delegatuak, abenduaren 29an egunkari bati eskainitako elkarrizketan, adierazi zuen neguko protokoloaren aktibazioa tenperatura bost gradutik beherakoa denean jartzen dela martxan. Aktibatzean, La Sirena aterpetxeko 100 plaza bideratzen dira hotzetik babestu behar diren eta bazterketa egoeran dauden pertsonentzat.

Batzordean delegatuari esan bezala, ezin dugu ulertu gabon hauetan 0 graduko tenperaturak izan ditugun gauetan (esate baterako, abenduaren 30ean goizeko 5:57ean Herrerako kaleko termometroek 0º markatzen zuten eta abenduaren 31n goizeko 9:07ean ere 0 gradu) edota haize boladengatiko alertak eta euri jasa handiak egon direnean. Egun guzti hauetan La Sirenako baliabidea itxita mantendu da eta neguko protokolorik ez da aktibatu. Delegatuaren iritziz “tenperatura ofizialak” erabili dira baliabidea ireki edo ez erabakitzeke, baina hiriko termometroek hori markatu zuten, zalantzarik gabe.

Horrekin batera, zalantzan jartzekoa da – hainbat komunikabideek salatu duten bezala - zerbitzua zabaldu den lau gauetan pertsonen eskaini zaien elikadura (esne-opilak plastikozko paketen eta irabiaki azukredunak). Zaila da partekatzea hori elikadura egokia eta osasungarria denik gau hotzetarako eta osasun-egoera zailetarako. Zer esanik ez, Aterpetxera sartzeko moduz hitz egiten badugu: lehenengo atera iristen denari sartzeko dion tiketera mugatua, lasterketa bat balitz bezala gestionatuz, eskubide bezala ulertutako baliabide bat izan ordez. Bi gai hauen inguruan interpelaturik, delegatuak ez du inongo azalpenik eman batzordean eta ez du inolako asmorik adierazi hobekuntzak egiteko.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1. Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gutxienez, berak onartutako protokoloa bete dezan La Sirenako aterpetxea irekiz 5 gradu azpiko tenperatura egiten duen gau guztietan.
2. Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, elikadura zerbitzu bero, osasungarri eta duina izan dezala La Sirena aterpetxea irekitzen duen egunetan.
3. Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, La Sirena irekitzen duen gauetan bertara sartzeko metodologia berrikusi dezala eta sarbidea balorazio profesionaletan oinarritu dezala.

Donostian, 2025eko urtarrilaren 24an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia